

gaurko filmakAne Muñoz

Monty Pythonen umorearen bidez ezagutuko ditugu bikingoak

■ **ERIK EL VIKINGO.** Monty Pythonen umorearen eskutik datorrigun komedia ero honekin une entretenigarria igaroko dugu gaur. Azken aldian punta-puntako bilakatu den Tim Robbins aktorea (*Cadena perpetua*) bera da protagonista; eta nola ez

bada, Monty Python talde britainiar errakastatsuko kide bat baino gehiago izango du honek alboan ere. Bikingoen historia oso ikuspuntu bitxiak aztertu du Jones zuzendariak; *gag*-ez josita dago, interesez jarraitzen da istorioa. ♦

■ **LA COMPAGNIE DES LOUPS.**

Neil Jordanek oso lan kuriosoak egin ditu azken urteetan, baina, nire ustez, gutxi dira bere karreraren hasierako luzemetraia eder eta gozagarri honen mailara iristen direnak. Amets giroko mundu zoragarri batean sartuko gaitu Jordanek, besteak beste gizotsoen ipuin ilun baina polita kontatzeko. Filme fantastikoak gustuko dituzuenontzat nahitaezko zita izan behar lukeen honetan azpimarratzeko da eszenarrazteko bikaina. Neskato baten irudimena, haren amets eta fantasiak nahastuz sortzen den istorio ia konpreniezina —elkartuz joango diren atal ezberdinez osatua— ederki bihurtu zuen zuzendari bereziak irudietara. ♦

■ **NIDO DE AVISPAS.**

Rock Hudson eta Sylvia Koscina mirestuen presentzia erakargarriatik nabarmen dezakegu gaur egun 70eko hamarkadako zinta beliko arrunt samar hau; bestalde, ez da bi aktoreon karreraren oso garrantzitsua. Baina, tira, gerra geroan bi protagonisten amodiozko istorioa gustura jarraituko dugu, eta akziozko sekuentziarik falta ez denez, interesez ikusten da. Naziak alde batera eta bestera dabilzala, hauen aurka jotzeko prest dauden italiar gaztetxo haserretuak aurkeztuko dizkigu zuzendariak. Portzierto, erraz nabaritu dugu errealizazioan ez zela oso inspiratua ibili. ♦

■ **UN JOUR SANS FIN.**

Andie McDowell goxoa eta Bill Murray exageratua elkartu zituen filme berri, kurioso eta atsegin hau, batik bat, irudimen handiz eginiko gidoi orijinalari esker da berezi eta ikusgarria. Gainera, nahiko erritmo zuzenez zinematzen jakin zuten Ramis zuzendariak, nahiz eta zenbait unetan gehiegi luzatu eta errepikatu egiten den; erdi aldera hasiko da zertxobait nekagarri bihurtzen, eta bat-batean berriro eskuratu du erritmo arina. Kazetari protagonista gero eta erotzenago joango zaigu, behin eta berriro, ha- maika biderretan egun berbera errepikatuko dela

10:00-La 2	LA CANCION DE AIXA 1938, Florian Rey, 97 m.	*
11:05-ETB2	NIDO DE AVISPAS 1970, Phil Karlson, 110 m.	**
11:40-La 2	EL COLOSO DE ROMA 1964, Giorgio Ferroni, 85 m.	*
15:35-T 5	EL ULTIMO LIGON 1986, Corey Allen, 92 m.	*
15:35-A 3	LAS DOS CARAS DEL MAL 1993, Gilbert Gates, 89 m.	**
15:55-ETB2	CONTRA TODO RIESGO 1983, Taylor Hackford, 81 m.	**
17:10-La 2	LOCOS AL VOLANTE 1976, Chuck Bail, 102 m.	**
20:55-F2	UN JOURS SANS FIN 1992, Harold Ramis, 100 m.	**
21:45-ETB2	EL ULTIMO GRAN HEROE 1993, John McTiernan, 122 m.	**
22:00-C + (f)	MORIRAS EN CHAFARINAS 1994, Pedro Olea, 86 m.	*
22:35-C + (e)	LUCKY BREAK 1994, Ben Lewin, 90 m.	**
22:45-TF1	LE CANARDEUR 1974, Michael Cimino, 100 m.	**
23:00-Arte	LA COMPAGNIE DES LOUPS 1984, Neil Jordan, 90 m.	**
00:20-TVE1	FIEBRE SALVAJE 1991, Spike Lee	**
01:00-La 2	EL RELOJ 1945, Vincente Minnelli, 87 m.	**
01:45-T 5	ERIK EL VIKINGO 1989, Terry Jones, 90 m.	**
04:45-A 3	SCANERS 1981, David Cronenberg, 95 m.	**

TXARRA * ESKASA ** BALEKOA *** ONA **** BIKAINA *****

ikustean. Goizean iratzargailua entzungo duen unetik oheratu bitartean topatuko duen jendea, el-karrizketak eta egoera guztiak errepikatu egingo direnez, egoera aprobe-txatuz, joko dibertigarri bat bururatuko zaio kazetariari. ♦

■ **EL RELOJ.**

Zuri-beltzean filmaturiko zinta honen interpretatzailen bila hasi aurretik, emaztea bera aukeratua zuen jadanik Minnelli zuzendariak, rol nagusia bere neurriera egokituz gainera. Normalean filme musikaletan aritu izan zen Judy Garland, eta aldi honetan Robert Walkerrekin osatzen du bikote protagonista. New Yorken girotua dagoen zinta goxo honetan amodiozko istorio hunkigarria erakutsiko digute neska gazteak eta soldaduak. Hauek, elkarrekin egoteko denbora gutxi baidute ere, oso maite dute elkar. ♦

■ **CONTRA TODO RIESGO.**

Bideo-klip baten antzera moldaturiko irudiak nagusi dituen zinta hau ez da handia, baina bai entretenigarri eta ikusterraza. Jacques Tourneaur adituaren filmografia ezinbestekoa den *Out of the past* liluragarriaren remake bezala aurkeztu zuten Hollywooden, eta, beno, penagarria da haren errepikapena izan nahi eta haren parera, ezta hurrik eman ere, iristen ez den filme honi harekiko paretotasuna bilatzen hastea. Zaila baita, benetan. Robert Mitchum eta Jane Greer agertzen ziren Tourneuren lanean, eta hemen, berriz, Rachel Wardek eta Jeff Bridgesek beteko dituzte plano gehienak, inolako lan nabarmenik egin gabe. Hackford zuzendariak jatorrizko filme hartako aktore batzuk bildu zituen bertsiarretan; ez zitzaion baliagarriegia izan, hala ere. ♦



07:30 Aurkezpena.

07:30 Superbat. Haur eta gazteentzako saioa.

- **Doraemon katu kosmikoa.** Marrazki bizidunak.

- **Kixote Mantxako.** Marrazki bizidunak.

- **Hattori Ninjaren abenturak.** Marrazki bizidunak.

- **Isidoro.**

09:00 Kirol abentura.

12:00 ETB hezibide. Dibulgazio saioa.

12:50 Iparraldearen orna.

13:00 Bertatik bertara.

13:30 Gaur Egun. Albistegia.

14:30 Euskaraokea. Errepikapena.

15:00 Bosteko familia.

15:45 Kirol abentura.

16:20 Parker Lewisek ez du sekula galtzen. Telesaila.

15:50 Sugebeltza.

17:15 Berriketa gutxi. 16:9 Ikusmira Berrian.

17:50 Iparraldearen orna.

18:00 Superbat.

20:30 Gaur egun.

21:00 ETB kirolak.

21:10 Dragoi Bola z.

21:35 Jaiak 96.

21:50 Yoyes, 10 urte.

22:55 Bertatik bertara.

23:25 Palauko harkaitzezko uhateak.

00:15 Gaur egun.

00:25 Kirol abentura.

00:55 Magnum. Telesaila.

01:40 Amaiera.

ETB 2

TVE 1

06.00 - 14.00

09:23: Aurkezpena.
09:25: Veronica: el rostro del amor. Telenobela.
10:05: ETB educación evolución en el cruce.
11:05: Cine 2.
Nido de avispas (Hornest nest). Zuzendaria: Phil Karlson. Aktoreak: Rock Hudson, Sylvia Koscina, Sergio Fantoni, 1970.
12:55: Rompecabezo-tas. Lehiaketa saioa. Errepikapena.
13:30: ETB kirolak.

06:00: Selva Maria.
07:30: Noticias.
07:55: ¡Estamos de vacaciones!
09:35: Club Disney verano.
10:40: Los rompecabezones.
11:30: Mañanas de primera.
13:55: Noticias.

14.00 - 19.00

14:00: 14:00.
14:30: Teleberri. Albistegia.
15:30: Goenkale. Telesaila: Malentendidos.
15:55: Cine 2.
Contra todo riesgo (Against all odds). Zuzendaria: Taylor Hackford. Aktoreak: Rachel Ward, Jeff Bridges, James Woods.
18:10: Colegio Mayor.
18:40: Los caballeros de Houston.

14:00: Informativo territorial.
14:35: Paso a paso.
15:00: Telediario 3.
15:39: El tiempo. Eguraldia.
15:45: Txirrindularitza. Espainiako Vuelta. 4. etapa.
17:00: Cafe con aroma de mujer.
17:50: Noticias.
18:00: Tendido cero. Zezenketa.

19.00 - 00.00

19:30: Medias de seda. Telesaila.
20:20: Rompecabezo-tas.
20:58: Teleberri. Albistegia.
21:45: La noche de... El ultimo gran heroe (Last action hero). Zuzendaria: John McTiernan. Aktoreak: Arnolds Schwarzenegger, F. Murray Abraham, 1993.

20:00: Gente.
21:00: Telediario 2.
21:39: El tiempo.
21:45: Videos de primera.
22:30: Futbol. UEFAko kopa: Tenerife - Maccabi Tel Aviv.

00.00 - 06.00

00:40: Teleberri. Albistegia.
00:45: Luna sobre Miami. Telesaila.
01:35: Amaiera.

00:20: Martes de cine. Fiebre salvaje. Zuzendaria: Spike Lee. Aktoreak: Annabella Sciorra, Wesley Snipes, 1991.
01:00: Telediario 3.
03:00: Renegado.
03:45: Tensión en la noche.
04:35: El tren.
05:25: Testimonio.
05:30: Telediario 4.

CANAL + (e)

08:00: Redacción. 08:05: ABC World news. 08:25: Plusvalia. 08:30: Marrazki bizidunak. 08:55: Redacción.

09:00: El día despues. 09:52: Redacción. 10:00: Zinema: Boscados de realidad. 11:35: Zinema: La ley de la frontera. 13:30: Los 40 principales. 14:00: Telesaila: Padres forzosos. 14:25: Más deporte. 14:55: Redacción. 15:00: Zinema: Tumba abierta. 16:30: Piezas, especial imagina 96. 17:22: Zinema: Circulo de amigos. 19:01: Dokumentala: Deporte cibernético natación. 19:30: Programa más o menos multiplicado. 20:00: Avance redacción. 20:05: Telesaila: Al senador ni caso. 20:30: Lo + Plus. 21:30: Redacción. 21:53: Contrarreloj. 22:00: Estreno Canal +: Moriras en Chaparinas. 23:28: Zinema: Una tribu en la cancha. 01:13: Musica noche: Peter Maxwell Davies: El faro. 02:35: Amaiera.

CANAL + (f)

07:00: CBS evening News. 07:20: Le journal de l'emploi. 07:25: Cyberflash. 07:35: Minus et cortex. 08:00:

TV. 09:00: L'ex. 10:35: Flash info. 10:40: Alien, l'univers des insectes. 11:00: Zinema: Les péchés mortels. 12:30: La grande famille. 13:30: Le journal de l'emploi. 13:35: Zinema: Fugueuses. 15:05: Zinema: Les misérables. 17:55: Le dessin animé. 18:20: Cyberflash. 18:35: Nulle part ailleurs. 20:30: Le journal du cinéma. 20:35: Zinema: L'île aux élans. 22:05: Flash info. 22:10: Le cochon de gaston. 22:35: Zinema: Lucky Break. 00:10: Zinema: Secrets de filles. 01:00: Zinema: Les plus beaux seins du monde. 01:20: Le journal du hard. 01:25: Zinema: Leçons privées. 02:45: Surprises. 03:00: Amaiera.